

ATXILOKETAK ▶ BATASUNAREN MANIFESTAZIOA

# Igandean atxilotutako zazpi lagunetatik hiru espetxeratu dituzte

Legez kanpoko manifestazioan parte hartzea, lesioak, desobedientzia, atentatua eta autoritateari erresistentzia leporatu dizkie epaileak guztiei; gehienek ukatu egin dituzte akusazioak

NAGORE IRASTORZA

Ertzaintzaren komisaldegian bi egun inkomunikatuta pasatu eta gero, atzo goizean deklaratu zuten epaile aurrean Batasunaren igandeko manifestazioaren ondoren atxilotutako zazpi lagunek. Atxilotuetatik hiru kartzelaratzeko eta beste lauak aske uzteko agindua eman zuen epaileak. Azken lauek, hala ere, epaitegian sinatu beharko dute astelehenero.

Atxilotu guztiei legez kanpoko manifestazioan parte hartzea, polizien aurkako atentatua eta lesioak egitea, desobedientzia eta autoritateari erresistentzia leporatu zizkien epaileak.

## Deklaratzeari uko

Zazpi atxilotutako hiruk Aitor Iberorekin, haiek izendatutako abokatuarekin, deklaratu zuten. Beste hirurek ofiziozko abokatuarekin. Hain zuzen, Altsasuko Josetxo Lucasek, Lezoko Unai Saizarrek eta Irungo Ruben Garciak deklaratu zuten Iberorekin. Lucasek eta Saizarrek uko egin zioten epaile aurrean deklaratzeari. Aitor Ibero abokatuak IRUTXULOKO HITZARI jakinarazi dionez. Hala ere, Saizarrek defentsaren gal-



Tentsioa nabaria izan zen Bulebarrean. ANDONI CANELLADA/ ARGAZKI PRESS

derei erantzun zien; egotzitako delituekin zerikusirik ez zuela adierazi zuen. Ruben Garciak, aldiz, deklaratzera erabaki zuen. Ertzainak mutil bat joka ikusi zituela adierazi zuen, eta «Polizia hiltzailea» oihukatu zuela onartu. Leporatutako delituak ez zituen onartu, ordea. Lucas eta Saizar Martutenen espetxeratzea agindu zuen epaileak; Garciak astelehenero epaitegian sinatu beharko du.

Esan bezala, beste hiru atxilotu ofiziozko abokatuak lagunduta deklaratu zuten. Espetxeratutakoa gasteiztarra da. Beste biek 50 urte inguru dituzte, eta haietako batek, aurrean, pilotakada baten azterna ikusgarria omen zuen

deklaratzera agertu zenean. Bi hauek ere epaitegian sinatu beharko dute astelehenero. Herrizaingo Sailak Ertzaintzak beste pertsona bat ere atxilotu zuela zabaldu zuen —zazpi-garrena—, baina IRUTXULOKO HITZAK jasotako informazioen arabera, epaitegira hurbildutako inork ez du epaitegian ikusi; pertsona hori libre dago, baina ez dakigu deklaratu duen, ezta zein egoeratan dagoen ere.

## Salaketa

Askatasunak atxiloketak eta espetxeratzeak salatu ditu, prentsa ohar bidez. «Ertzaintzak egindako atestatueta oinarritzen dira soilik. Gainera,



Zazpi lagun atxilotu zituzten igandean. GARI GARAIALDE/ARGAZKI PRESS

Ertzaintzak herritarren manifestatzeko eskubidea zapuztu zuen, zaurituak eta atxilotuak eraginez». Atxiloketak oso bortitzak izan zirela ere salatu zuen Askatasunak.

Igandeko istiluetan zauritu asko ere izan zen, pilotakaden eta kolpeen ondorioz, bereziki. Bost lagun erietxera eraman behar izan zituzten, eta denek alta hartua dute dagoeneko.

AZPIEGITURAK ▶ LARRATXOKO ESKAILERAK

## Larratxon eskailera mekanikoak jarriko dituzte plazatik aparkalekura igotzeko

Bi igogailuak egiteko lanak hilaren bukaeran hasiko dituzte

ION LOPEZ

Larratxoko oinezkoen gunetik aparkalekura berrira igotzeko, eskailera mekanikoak jarriko dituztela azaldu zuen atzo Ernesto Gasco Mugikortasun zinegotziak. Gascok azaldu zenez, Larratxoko bizilagunekin bilerak egin ondoren, dagoeneko onartuta dauden bi igogailuak egitea erabaki zuten. Hala ere, auzoko mugikortasun arazoak ikusita, oinezkoen gu-

nean eskailera mekanikoak jartzea erabaki zuten.

Ekimen hauek guztiak Udalak onartu berria duen trabak ezabatzeko plan orokorrean ageri dira. Guztira, Udalak 879.000 euroko inbertsioa egingo du eskailera berri hauetan. Larratxoko Donostiako mota honetako lehen eskailera izango dira: «Oraindik ez dugu eskailera mekanikorik jarri auzoetan, guk igogailuen aldeko apustua egiten dugula-

ko. Igogailuetan mugikortasun arazoak dituzten pertsonak eta haurren aulkitxoak ere sar daitezkeelako, besteak beste», azaldu zuen Gascok. Eskailera berriek 14'88 metroko malda gaindituko dute.

Udal Gobernuak lehenbailehen eman nahi du eskailera egiteko baimena; lanei 2006. urte hasieran ekingo diete. Gogoan izan, bestalde, hilaren bukaeran hasiko direla Larratxoko igogailuak egiten.



Eskailera Larratxoko toki honetan jarriko dituzte. ION LOPEZ